

# KALEKO HAURRAK

## Asha-Kiran fundazioa

**J**ende askorentzat kaleko haurren mundua ezaguna izan arren, ez da erraza hori definitzea. Haur denak ez dira etxe gabeak, nahiz eta etxea plastikozko txabola, zubi azpian egindako kartoizko egitura edo hodi erraldoia izan daitekeen. Gehienak kaleetako langileak dira, baina espazio fisiko bat partekatzen dute beren familiarekin eta irabaziak gurasoei ematen dizkiete. Nazio Batuen Asanbleak honela definitzen ditu: "Zentzu zabalean ulertuta kalea ohiko bizileku edota bizimodu duen edozein haur da, bere bizitzaz arduratzen diren helduek modu desegokian babestuta, gainbegiratuta edo bideratuta dagoena".

dute zer den zuzena eta zer okerra beren munduan eta egin dezaketena eta ez dezaketena kontrolatzen duen herrialdean –maiz liskar handien artean–. Batzuen ustez, bizirik irauten dutenak dira, eta, beste batzuek, ordea, errukia diete. Tamalez, jendearen ohiko erantzuna mesprezua eta aurkako jarrera izaten dira.

### DENAK EZ DIRA BERDINAK

Kaleko haurren nahasketa sozialaren barruan, lau talde zedarritu daitezke gutxi gorabehera. Lehenik, gauean familiarengana doazen haur langileak daude; inoiz eskolara joango dira, eta ez dute delitirik egiten. Bigarrenik, erdi independenteak diren haurrak daude; beren familia loturak hasiak dira urratzen, eta gero eta gehiagotan egiten dute delitua. Hirugarrenik, beren familiekin batera kalean bizi diren haurrak daude. Indian, "espaloietako herritarrak" dira. Azkenik, familiekiko lotura urratu duten eta etengabe kalean bizi diren haurrak daude.

Oso arraroa da haurrak bost urte bete aurretik kalean bizitzen hastea. Beren gorputzaren irudiak heldu baten itxura hartzen duenean, delitua egin edo lan egin behar izaten dute, biziraun nahi badute. Izan ere, haur txikiek limosna jasotzen dute xarma berezi bat izateagatik. Halere, adin jakin batera iritsita, jendeak arriskutsu ikusten ditu, eta orduan haurrei zaila egiten zaie kalean eskatuz dirua eskuratzea.

Nahiz eta batzuetan begien bistakoa ez izan, kaleetan noraezean dabilen haur gehienak mutilak dira. Generoen arteko aldea azaltzen duen arrazoi onargarri bat neskatoek anai-arreba txikiagoen ardura hartzea da. Kaleko haur askoren



Haurrek kaleetan egiten dute lan, bizirik irauteko edo familiaren ekonomiari laguntzeko.

Oro har, kaleko haurrak goiz independenteak izatera animatzen dituzten familietatik etortzen dira. Garapen bidean dauden herrialdeetako hiriguneetako kaleetan egoten dira. Kalean, behartsuen ekonomian toki bat aurkitzen ikasiak dira eta herritar moduan parte hartzen dute. Bertan izaten dute ogibidea eta bertan erabakitzen

familiak mutikoak bultzatzen dituzte mendebaldeko klase ertainaren sentsibilitaterako onargarria dena baino askoz lehenago etxetik atera daitezten, eta neskatoak animatzen dituzte askotan ama txikien eginkizuna betez familiaren ongizatea hobetzen lagundu dezaten.

## KALEKO BIZIMODUAREN ARRAZOIAK

Hainbat hipotesi aurkeztu dira kaleko haurren jatorria azaltzeko. Lehena pobrezia lotuta dago, bigarrena familia barruko bortxakeria eta hirugarrena, aldiz, kultur ereduaren 'modernizazioari'. Zergatik ume batzuk kaleko haur bihurtzen diren argitzeko, hainbat faktore kontuan hartu behar dira: haurren eta bere familiaren profil psikologikoa, haren kaleko bizimoduari buruzko pertzepzioa eta haien inguruan kaleko haurren kultura bat egotea edo ez.

Kaleko haur bihurtzeko prozesua ondo dokumentatuta dago. Kaleko haur gehienek aurreikusi daitekeen mailakako prozesu bati jarraitzen diote: hasieran behin edo bitan ateratzen dira etxetik, eta pixkanaka gero eta denbora gehiago ematen dute etxetik kanpo. Pixkanaka harreman handiagoa dute beste haur batzuekin beren familiarekin baino, nahiz eta ez duten hausten erabat familiarekin, non eta gurasoek ez dituzten gaizki tratatzen. Familiak abandonatuta kaleetan bukatzen duten haurrak uste den baino gutxiago dira.

Autore askok uste dute garapen bidean dauden herrialdeetan haur gehienak pobrezia-oren ondorioz egoten direla kalean. Halere, azterlan guztiek ez dute hipotesi horren alde egiten. Bombay-ko kaleetan 1.000 haur elkarrizketatu ondoren, ikerlari batek adierazi zuen arrazoi nagusia ez zela pobrezia, baizik eta familiaren tratu txarra. Indiako beste azterlan batzuetan ere ikuspuntu horren alde egiten da. Arrazoizkoa da kasu gehienetan hainbat faktore nahasten direla pentsatzea.

Modernizazioaren hipotesiak pobrezia eta familiaren tratu txarra barne hartzen ditu, eta defendatzen du kaleko haurrak ez direla ateratzen komunitatearen babesa duten familia handietatik. Hirietako familia pobre modernoak behartuta daude maiz 'bizilekuz' aldatzera; hortaz, ezin dute epe luzeko harremanik izan beste familia batzuekin. Autore batzuek diotenez, landatik hirira egiten den migrazioa, modernizazioaren beste alderdi bat izanik, berez nahikoa da kaleko haurren fenomeno azaltzeko.

Bangalore-n (India) egindako inkesta baten arabera, hiriko kaleetako 45.000 haurren artean gehien jatorria landa eremutik zetozen familiak ziren. Landan bizimodurik aurkitu ezinean, globalizazioa, mailegu emaileen lukurreria eta naturako hondamendiak direla eta, itxaropenak eta asmoek hirietara bultzatzen dituzte ogibide bila.

Emakumearen eginkizuna ere garrantzitsua da. Arrazoizkoa da pentsatzea ezkontzatik kanpo jabe izateko aukerarik ez duten eta prestakuntzarik jaso ez duten emakumeek joera txikiagoa dutela zorigaitzoko bikote egoera batetik ateratzeko. Dinamika horiek guztiak adingabeen abusuarekin lotu dira. Hori horrela, haurren tratu txarrak umeak familiatik urrutiratzeko arrazoi bat bada, hori islatuta geldituko litzateke emakumeek independentzia ekonomikoko maila desberdinak dituzten talde sozialak elkarrekin konparatzean.

## HAURREN OSASUN OROKORRA

Autore batzuen iritziz, kaleko haurrek egokitze gaitasun handia dute, eta adimen, enpatia eta autoestimua maila handia bezalako ezaugarriak dituzte. Halere, zaila da haurren buru eta emozio osasuna egokia dela frogatzea. Alde



Beraien ardura duten helduen begiradarik gabe, arriskuan egoten dira.

batetik, ikuspuntu hori jendearen eta hedabideen pertzepzioarekin kontraesanean dago, bereziki drogen erabilpenari, bortxakeriari, jarduera sexualari eta horiek dakartzaten osasun arriskuei dagokienez.

Indian ez da arraroa kaleko hurrek sexu harremanak izatea eta erostea, beren lagunen edota drogen eraginez. Babes bila ari direlarik, neskatoek lagun talde batekin bat egiten dute, baina talde horretako mutikoek beraiek erabili egiten dituzte neskak. Bangaloreko Haurren Ongizatearen Batzordeko presidentearen arabera, "Askoren ustetan, mutikoak salbu daude, baina horiek ere abusuaren, HIESaren eta transmisio sexualeko beste gaixotasun batzuen arriskupean daude, berdin edo gehiago, zeren eta ezagutza txikiagoa baitute eta oso goizetik plazerrari lotutako sexurako joera baitute".



Ardura maila handia dutenez, ez dute gozitzen haurtzaroz, eta behar baino lehenago bihurtzen dira heldu.

Era berean, bortxakeria mailaren inguruan ere iritzi desberdinak daude. Aurreikusteko modukoa da bortxakeria, haur asko bizi baitira prekarietatean. Haien arteko bortxakeria maila alde batera utzita, baina kaleko hurrei buruzko ia azterlan guztiek diote haien beldurrik handiena ez dela gosea edo beren familiaren segurtasunik eza, baizik eta agintarien basakeria. Bombayko kaleko 1.000 haurri buruz egindako azterlanaren arabera, haurren beldurrik handiena poliziaren balizko jazarpena zen.

Litekeena da haien erronka nagusietako bat izatea jendeak haiekin duen jarrera, alegia,

adingabeen portaerak berak eragiten duen jarrera. Ibilgailuen gidariak ordaindu beharrean daudenean, hurrek aparkalekuetan beren ibilgailuak "zaindu" ditzaten (hurrek beraiek ordaindu ez duten jabeen ibilgailuak hondatzeko arriskupean), edo gorritz dauden semaforoetan txikizkako saltzailleek edo eskaleek hurrei jazarpena egiten dietenean, jendearen ezinegona eragin ez ezik, polizia presionatzeko arrazoi bat ere eman egiten zaio jendeari.

## KALEKO BIZIMODUAREN ALTERNATIBAK

Kaleko hurrak beren beharrei erantzuteko dauden aterpeekin edo ikaskuntza zentroekin harremanetan jartzen direnean, haietako askok aitortzen dute zentro horiek bizimodu hobe baterako itxaropen bakarra direla. Indian eta Nepalén aritzen diren gobernu kanpoko erakundeek eskarmentuak argi pixka bat eman du honelako haurren beharrez bereziki inguruan. Hezkuntza ez-formala emateko toki onenak haur horietako gehienak bizi diren gunek baztertuak izaten dira. Hurrak ohiko ikastetxeetara joateko prestatuko dituen hasierako heziketaz gain, ikasketa planean autoestimua hobetzeko aukerak eta oinarriko bokaziozko trebetasunen ikaskuntza sartu behar dira.

Horrelako guneetan aritzen diren gobernu kanpoko erakundeek zeregin garrantzitsu bat da gurasoak jabeaztea seme-alaben heziketa denontzat onuragarriagoa dela lan egitera edo kalean eskatzera behartzea baino. Baina, horretarako, giza baliabide ugari behar izaten dira. Kanpaina horiek finantzatzeko oztopo handiak egon daitezke, gobernuak ahaztu ohi baitira haur horietaz. Hutsune hori betetzeko, dohaintza pribatuen bidez bitarteko materialak eta giza baliabideak lortzen dira, baita gobernu kanpoko erakundeek informazio trukea ere, haiek batzuetan diru laguntza ezaren ondorioz elkarrekin lehian ibiltzen baitira.

Aldi berean, funtsezkoa da gobernuak kontratzea horrelako haurren beharrei erantzutea merkeagoa dela epe luzean milioika pertsona bazterkerian murgilduta edukitzeak dakarren kostua baino. UNICEFen kalkuluen arabera, Indiako sei hiritan milioi erdi inguru kaleko haur daude: Bombay, Calcuta, Madras, Hyderabad, Bangalore eta Kanpur-en.

## ASHA-KIRAN-EN AHALEGINA

Asha-Kiranen ustez, pobrezia bizitzan hautatzeko aukerarik ez izatea da nagusiki. Pertsona batek ezin duenean ez bere etorkizuna aukeratu eta ez bere egitasmoak gauzatu, oinarrizko giza eskubi-deak ukatzen zaizkio. Aukerak sortzeko beharri-zan horretatik abiatuta, honen eginkizun sozialaren onuradun nagusiak Indiako behartsueneren seme-alabak eta horien erreferentziatzko ingurunearenak dira.

Gaur egun, Asha-Kiranek hainbat proiektu martxan jarriak ditu Pune hirian, Indian. Pune ekonomikoki indartsua den hiri hezia da, eta herrialde osotik familiarekin batera lan bila iristen diren nekazari askoren helburu nagusia.

Yashodhara Harrera Etxea proiektuaren bidez, arriskuan dauden ia 200 haur hezi eta zaintzen ditu barnetegi edo erdi-barnetegi moduan. Bestetik, Eguneko Zentroak proiektuak eguneko aterpea eskaintzen du eraikuntzako langileei zaintza orokorra eskaintzeko, heziketarako aukerak emateaz gain. Azkenik, Garapen Komunitarioa proiektuak zerbitzu multzo zabal bat ematen die gune baztertuetakoko biztanleei.

Asha-Kiranen proiektu guztiak desbantaila duten gizataldeen bizimodura hurbiltzen dira, besteak beste, kaleko haurrengana. Hori horrela,



Prestakuntza akademikoa edo bokaziozkoa funtsezkoa da kaleko haurrentzat.

prestakuntzarako eta partaidetzarako bideak eskaintzen zaizkie bai hurrei eta bai beren familiei. Pertsonentzako guneak bultzatu eta finkatzen ditu. Horrela, haurrek, familiek eta giza taldeek gaitasuna lortzeko aukerak eta baliabideak izango dituzte ezjakintasunaren eta pobrezia-aren gurpil zorotik ateratze aldera, eta, horren ondorioz, haien bizimodua hobetuko dute.

Laguntzen diguten pertsonentzat, gure lana bide bat da beren elkartasuna adierazteko eta gizakiaren ongizateari lagundu izanaren poza bizitzeko.

## ASHA-KIRAN FUNDAZIOA

902 181 245

[www.asha-kiran.org.es](http://www.asha-kiran.org.es)  
[fundacion@asha-kiran.org.es](mailto:fundacion@asha-kiran.org.es)